

Zure umeak ere eskolan distira egin dezan

Irakasle eta gurasoon esku dago hurrengo ikasturtean ume bakoitza eskolan positibo nabarmentzea. Eta motibazioa gailurrera eramatea, umearen garapena optimoa izan dadin. European sortu eta Hego Euskal Herrian ere zabaltzen ari den Golden 5 hezkuntza programak erakusten digu ikuspegia aldatzarekin eta egunerokoan teknika txiki batzuek txertatzarekin emaitza ikusgarriak sumatzen direla berehalakoan. Uda garai aproposa duzu umeenganako ikuspegi positiboaz gozatzeko.

Testua:

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

IKASGELAN sartutakoan, lehen-lehenik ikasle talde batekin egingo dugu topo. Gure eskolako bizipenetan ere gelako giroa, lidergoak, gatazkak eta adiskidantzak ditugu oroitzapen esanguratsuenak. Aldiz, talde dinamikei buruz ezer gutxi lantzen da Magisteritzaren karreraren eta psikologia sozialeko teoriak ere oso gutxi aplikatu dira hezkuntzan.

Elkarbizitza kudeatzeko abiatu zen Golden 5 programak talde harremanen bi teoria ditu oinarriak: atribuzioen teoria eta espektatiben teoria. Hala azaldu zuen programan aitzindari den Maria José Lera-k (Sevillako unibertsitateko doktorea Psikologian), Gipuzkoako Berritzeguneei maiatzeko antolatutako jardunaldietan: “Atribuzioen teoria 1958an sortu zuen Weinerrek eta talde harremanen oinarri-oinarrizko teoria da. Norbaitek atribuzio bat egiten duenean, berdina da zuzena edo okerra izan, gainerako gizakion joera naturala da atribuzioak baieztatzea. Gure buruak inkontzienteki bilatu eta hautatu du besteak egindako atribuzioa baieztatzen duen esperientzia-



Goldenak bost eremutan lantzen ditu bere oinarriak: 1. Gelaren kudeaketa (irakasleak taldea kudeatzeko erramintez jabetzea), 2. Harremanak eraikitzea (harreman onak lantzea ikasleekin), 3. Kilma soziala (talde osasuntsua lortzea), 4. Ikaskuntza doituia (ikasle bakoitzaren mailara egokitua), 5. Familia (Golden ikuspegiaren partaide egitea).

Informazio osoa: www.golden5.org webgunean.

ren bat”. Eskola barruan atribuzioen dinamika nola funtzionatzen duen deskribatu zuen umorea eta energia positiboa darion Lerak: “Irakasle batek esaten duenean ‘a zer goiza eman didan 6.A gelak! Nolakoak diren!’, atribuzio bat da. Entzun digun beste irakasleak buruan bilatuko du esperientzia bat baieztatuko duena eta esango du: ‘Egia da, aurrekoan harrerako langileak esan zidan ederra dugula talde horrekin...’. Irakasle horien arteko harremana estutu egiten da eta kito, ez da ezer gertatzen”.

Edo bai, gertatzen da?

Lerak galdera pausatu zuen: “Irakasleentzako pentsamendu horrek gelari eragiten dio edo ez? Zergatik? Pentsatzen

dugun horixe ikusten dugulako azkenerako. Nola sartuko naiz gela horretara? Ikusiz oso zaila dela. Gelara sartu orduko oharkabea (zeren hau dena prozesu inkontzientea da) begiratu diet zutik dauden hiruei eta hizketan dauden bieie pentsatuko dut ‘banekien nik! aztoratuta dagoela gela hau!’. Oharkabea zer ari gara bultzatzen? Aztoramendua. Eta azkenerako taldeak berak pentsatu-

Gazako lerroko 30 ikastetxetan martxan

BOST HERRIALDETAKO eta diziplina anitzeko profesionalak (psikologo, soziologo, hezkuntzako langile, bitartekari...) hasi zuten proiektua 2004an: norvegiar, belgikar, italiar, poloniar eta andaluziarrek. Europar Batasunak diruz lagundu zuen hasieratik eta hezkuntzan motibazioa hobetzeko irtenbideak, estrategiak, erramintak ematea zuen helburu, elkarbizitzari lotuta.

“2006rako ikusi genuen proiektuak funtzionatzen zuela. Frogatu behar genuen ea funtzionatzen zuen gehien behar zen testuinguruetan”. Argi du Maria José Lerak: “Gehien behar den lekua Gazako lerroa da. Gazako lerroak 2006an eskatu zigun proiektua, eta Europak eragotzi bazigun ere (esan zigun proiektua europarra zela eta ez palestinarra), Europari eran-



PARSEEDIR

tzun genion dirua ukatuko zigula baina gogoia ez. Dirurik gabe baina joan egin ginen eta bertako bi eskola palestinarretako irakasleak formatzen hasi ginen”. Proiektua emaitzak ematen hasi zen baina 2009ko Gabonak iritsi ziren eta Gazako lerroa erabat bonbardatu zuten “Berun urtua” operazioan: Golden 5 programa martxan zuten eskolak bonbardatu zituzten, formatzaileen GKEa bonbar-

datu zuten... Txikizioa eragin zuen operazioa bukatu eta urtarrilaren 18an telefonoz mezu hau jaso zuten: “Mese-dez, Gazan behar dugun bakarra Golde-na da”. Lera mintzo da: “Umeen etsipen maila terriblea zen, eta hala-koetan behar dugu norbanakoaren garapena. Segurtasun hori, konfiantza hori, bizitzan aurrera jarraitzeko. Gelara zerbait positi-

boa iristea falta zen eta hori handi-handi jartzea. Gehien behar zuten garaia zen. Israelek sartzea eragotzi zigun eta oraindik debekatzen digu, baina ari gara lortzen”. Urtarril honetan jarri dute martxan proiektua Gazako lerroko 30 eskoletan. Ikastaroak on-line ematen dituzte eta Zisjordanian ere 350 irakasle eta 16 eskolarekin ari dira. “Han funtzionatzen badu, denean funtzionatu behar du”.

ko du nahaspilatzaile hutsak direla”. Ideala litzateke batere atribuziorik ez egitea, baina hau gizakiontzat ezinezkoa omen. Beraz, testuinguru profesionalerako arau hau proposatzen du Golden 5ak: atribuzio positiboak bakarrik egitea. “6. Atik gatozenez irakasle gelara, esan ahalko dugu ‘6. A hori da... gela oso inteligente bat... eta ene nola dauden... oso aktibo dago taldea... eta irakasleoi erronka oso interesgarria jartzen ari zaigu e!’. Beste irakasle batek esango du, ‘ba egia da ideia oso interesgarriak bota zituztela lehengoan’. ‘Aktibitate handiarekin dabilta, sormen handiarekin...’. Gauza bera da baina beste era batera ikusten da. Eta taldeak bukatuko du sinesten sormen handikoak direla, eta denok ariko gara duten potentzialitatea baliatzen”.

Lerak oroitarazi zuen irakasleek eta gelako audientziak atribuzio positiboan kontuan duten garrantzia: “Ez da gauza bera atribuzioak zure etxean eta irakasle gelan egitea, edo audientziaren aurrean, ikasgela barruan. Demagun gela osoaren aurrean botatzen

dugula ‘ikasle honek hizkuntzarako gaitasun handia du!’ atribuzio bat egiten ari naiz. Zer pentsatuko dute gainerako ikaskideek? Bilatuko dute esperientziaren bat berretsiko duena ‘a, bai, asteburu batean Londresera joan zen, horregatik hitz egiten du hain ongi ingelesez’. Nire atribuzio hori orain konpartitua eta orokortua da, orain gela osoak hori ikusiko du, esan dugunez, pentsatzen duguna ikusten dugulako. Eta ingelesez zerbait esaten duen bakoitzean besteek haute-mango dute ‘ooo, ze ondo esaten duen!’ baina eta erratzen bada? zer esango du audientziak? Kanpo faktoreei egotziko die: egun txarra du, zorte txarra, testua oso zaila zen... Baina pertsona horrek hizkuntzarako gaitasun ona duela usteko du taldeak”.

Beti ez dira atribuzio positiboak egiten, ordea: “Oso-oso gutxitan, ihes egiten digu komentarioak eta botatzen digu ‘aix, zuk ez duzu honetarako balio’. Atribuzio bat egiten ari gara, konpartitua dena, eta gela osoak ikusiko du pentsatzen duena, alegia ez duela balio demagun irakurtzeko. Ikasle horri esaten dio-

Ume bakoitzak merezi du atribuzio positibo bat ikasgelan eta denen aurrean, esatea zer ona den halako gaitan

GOLDEN 5 PROGRAMA



2009an Golden 5ek bi sari lortu zituen: Europako Hezkuntza praktika onenak dituzten hamar proiektuen sarietako bat, eta Europako proiekturik onenaren sarian Brontzea. Argazkian eskuinean, Maria José Lera Brontzezko Izarra eskuan duela.

gunean: 'Irakurri ozen'. Nola irakurriko du? erabat txikiagotuta, ahots mehe batez. Zer dio audientziak? ez dakiela, gaizki ari dela. Baina pentsa dezagun umeak horri denari aurre egin eta ongi irakurtzen duela. Zer esango du audientziak? Kanpo faktoreei esker lortu duela: ongi ateratzen ari zaio baina zortea du-lako, testu hori aurrez ezaguna izango zuen, egun ona du... Baina berez ez daki irakurtzen".

Helburua garbia da: ume bakoitzak merezi du atribuzio positibo bat gelan eta denen aurrean. Esatea zer ona den halako gaian. "Denok gara onak zerbaitetan, beraz, bilatu egin behar da bakoitzaren on hori. Batzuen berehala ateratzen zaigu, bestea pixka bat gehiago bilatu behar da". Atribuzio positiboe-ek ekartzen baitute espektatiben teoriarekin lotutako Pigmalion efektua.

"Umeak bosnaka hartuko ditugu: bi oso ongi doazenak, bi arazoak dituztenak eta bat 'grisa' deitu ohi zaiona eta beste ikaskideen aurrean distiratu araziko ditugu"

Maria José Lera,
Golden 5 programan aitzindari

Golden betaurrekoak: espero dugunaren baitan dago porrota edo arrakasta

"Uste baduzu ikaslea ongi joango dela, nota onak ateratzen ditu. Gaizki joango dela uste baduzu, nota txarra ateratzen du. A zer begia dugun irakasleok, ia magoak gara!". Ikerketek frogatu dute ikasle batekiko espektatiba altuak dituen helduak, oharkabean arreta gehiago eskaintzen diola, azalpenak hobe eta bere modura ematen dizkiola, gehiago animatzen duela ("zuk ahal duzu-eta!"), bere akatsak gutxiesten dituela ("lasai, hau ez da ezer, zuk segi"), tematzen dela... "azkenean zertan ari da heldu hori? ikas prozesua errazten" azaldu du Lerak. Alde- rantziz jokatzeko helduak, oharkabean, ikasle horrenganako espektatiba apalak dituenen. Horren aurrean zer egin? "Espektatiba altuak eduki behar ditugu ume bakoitzarengan. Alegia, Golden betaurreko-ak jarri behar ditugu".

Ikasle batekiko espektatiba altuak dituen helduak, oharkabean ikas prozesua errazten dio: arreta gehiago eskainiz, azalpenak hobe emanaz, gehiago animatuz...

Kepa Goikoetxea, Laskorain ikastolako irakaslea
«Eskola porrota bizitzen ari zen ikasleak txapeldunen ligan bukatu zuen ikasturtea»

BERRITZEGUNEAK antolatutako jardunaldietan DBH 3ko esperientzia kontatu zuen Tolosako Laskorain Ikastolako Kepa Goikoetxeak: “Atribuzio txarrekin zetorren ikasle hura, oso markatuta, desmotibatuta eta itxaropen handirik gabe”. Golden 5eko estrategiak erabiltzen hasi zen Goikoetxea ikasgelan eta ikaslea hobeto erantzuten hasi zen. Ohar positiboak idazten zizkien irakasleak eta denen aurrean irakurtzen, egunero ikasle bati, eta aipatutakoaren txanda iritsi zen: “Lehenengo ohar positiboa jaso zuenean, erreakzioa bat-batekoa izan zen”. Irakaslearekin hitz egiteko hitzordua hartu zuen, eta oharragatik eskerrak eman ostean galdetu zion:

- Zuk beste irakasleekin hitz egiten duzu?
- Bai...
- Eta zuk nire aurreko notak badakizkizu?
- Ez naiz gogoratzen... zerbait esan nahi didazu edo?
- Oso gaizki ibili nintzen DBH 1. mailan.
- A, ez nekien.
- DBH 2ra juxtu-juxtu pasa nintzen.
- Pasa bazinen zure meritua izan gozen...
- Ez, ez, pasa egin ninduten garbi. Eta gero jada DBH 3. mailara ziur deskartez pasa nintzela. Nik ez nuen hemen egon



behar.

- Eta non egon nahi zenuen?
- Ez, ez, hemen egon nahi nuen baina nik ez dut ezer egin hemen egoteko. Ez dakit bada-kizun...
- Bada nik ongi ikusten zaitut.
- Egitan?
- Bai, poesia egin genuen hartan Xabier Leteren lau disko zuk ekarri zenituen. Eta etxean zegoen bertso-liburua ere bai.
- Bai, tira, etxean hautsa hartzen zeuden.

Handik aurrera, ikasleari buruzko atribuzio positiboak egin zituen irakasleak ikasleen eta beste irakasleen aurrean. “Ikaslea balorazio positiboekin gustua hartzen hasi zitzaion. Edozein aitzakia baliatzen zuen nire gelara etortzeko”. Irakaslearen gelara sartu zen

batean, Rubiken kuboak begiz jo zuen eta egiten irakasteko eskatu zion. Ostegunero 19:30ean joaten zen 15 urteko gaztea irakaslearenera kuboak egiten ikastera. “Eta hartean, beste gauza askoz hitz egitera”. Mezu eta balorazio positiboak jaso ahala, ikaslea erronkari heltzen hasi zitzaion, ikasgelako jarrera eta lana hobetuz, baina “nik etxean ez dut hori entzun, ez naute horrela ikusten eta oso zanpatua nago” aitortu zion irakasleari. Berari ezer esan gabe, gurasoekin bildu zen irakaslea. “Ama etsita zegoen, etxean errietan egunero, jada ez zion semeari eskolako kontuez galdetu ere egiten. Aitak esan zidan ‘nik bai, nik txikitu egiten dut, esaten diot: ez duzu egin, ez duzu ikasturtea gaudituko, ez zara gai, zure arreba askoz bizkorragoa da, zurekin beti berdin, nazkatuta gaude...’”. Irakasleek gurasoei proposatu zien Golden ikuspegia lantzea: [aitari] “Esaiozu harengan itxaropen osoa duzula, ongi joango dela”. Aitaren erantzuna: “Nik hori esaten ez dakit”. Irakaslearen proposamena: “Isilik egon zaitezke?”, “bai”. Amak hitz eman zuen bera saiatuko zela ikasketei buruzko mezu positiboak ematen. “Mutilak ikasturtea txapeldunen ligan amaitu zuen”. Gurasoak uztailan irakaslearengana joan ziren, negarrez: “Ez dakit zer egin duzun, baina eskerrik asko”.

Ikasgelan, bizitzan bezala, beti badira batzuk nabarmentzen direnak, akademikoki primeran doazenak, espektatiba altuekin... eta badira beste batzuk gutxiago distiraten dutenak. Gakoa ongi doazenekin sortzen den harreman erdua ikasle guztiengana eramatea da. Eta hori kontzienteki eta metodikoki egitea ezinbestekoa dela nabarmendu du Lerak, Golden programaren 5 zenbakiaren zentzua bistaraziz: “Umeak bosnaka hartuko ditugu eta idatzi egingo dugu. Ez badugu idazten,

beti ahaztuko ditugu berberak. Ikasleak nahasian hartuko ditugu, bi oso ongi doazenak, bi arazoak dituztenak eta bat ‘grisa’ deitu ohi zaiona. Bosnaka landuz, hurrengo epean (demagun aste pare batean) beste ikaskideen aurrean distiratu arazi behar ditugu”.

Emaitza bistakoak epe motz eta ertainean

Berehalakoan emaitza hauek ikusiko ditugula baieztatu dute Lerak eta Golden 5 praktikan jarri duten EAEko irakasleek: ondo zihoaze-

Motibazioaren gakoak: ikasle onena, erori ostean zutitzen dena

ARRETA, esfortzua eta irauteko gaitasuna. Aldagai horien arabera da ikasteko motibazioa. Pertsonak badu gaitasuna bere barrutik bere burua motibatzen. Nola sustatu barne motibazioa? Lau eremu hauek landuta: testuingurua, behar psikologikoak, pentsatzen duguna eta emozioak. Leraren hitzetan: “Horrek ekarriko digu eskolako emaitza hobea, baina batez ere ekarriko digu pertsonaren garapen osoa”.

✓ **Testuingurua:** “Haur hezkuntzako gela barruan aurkitzen ditugu koloreak, kortinak, apaingarriak, loreak, formak... baina mailaz igo heinean ez dakit zergatik, DBHko 4. mailan landaretxo bat aurkitzea... Argazkitan bakarrik gertatzen da! Goazen erraztera, goazen goxo egoteko, interesa gehitzeko elementuak sartzea”.

✓ **Behar psikologikoak:** Gizakiaren oinarriko hiru behar psikologiko hauek asetzan motibazioa ikaragarri hazten da. Bate-tik, kompetente sentitzeko beharra: ahal duela, badakiela, gauzak egiteko gai dela ikustea. “Erabil dezagun eskola jada egiten dakizkien gauza horiek jendaurrean erakusteko. Jar diezazkiegun lanak distira egin dezaten. Esan ahal izan dezaten ‘ikusten zeinen ona naizen honetan’. Berak merezi duela, balio duela seguru izango du. Eta bere burua maite duenak, balio



duela dakienak, zer egiten du eroritakoan? Altxa”. Bigarrenik, autonomo sentitzeko beharra dugu: “Utzi aukeratu zer egin, utzi erabakitzen lana taldean, binaka edo irakasleak lagunduta egitea nahi duen...”. Azkenik, ongi harreman-duta sentitzeko beharra dugu: maite gaituzten ikaskide eta helduak behar ditugu inguruan, baldintzarik gabeko laguntza eskaintzen digutenak.

✓ **Pentsatzen dugunaren garrantzia:** Gure buruz pentsatzen dugunak emango digu bizi-tzarekiko estilo bat. Pertsona batzuek estilo optimistagoa dute, eta beste batzuek ikuspegia gehiago dute porrotera bideratua. Horri lotua dago eskola porrota, Leraren arabera: “Eskola porrota horixe besterik ez baita, etsitzea, erori eta ez altxatzea, ‘zertarako saiatuko naiz?’ pentsatzea ‘nik ez dut honetarako balio, ez dut inoiz lor-

tzen’...”. Behin eta berriz altxatzea da gakoa: “Ez da hobea inoiz erortzen ez dena. Hobea da gehiagotan altxatzen dena. Zutitzeko behar duguna da esperientzia positibo asko eta asko izatea norberaren garapenean konfiantza izateko: ‘Gogoratzen zara erori zinen hartan nola altxa zinen?’ eta orduan indarra ateratzen du batek eta oztopoa zena palanka bihurtzen da gora egiteko. Gehiagotan zutitzen dena indartsuagoa da palanka hori topatzen duela-ko ‘jakina lortuko dudala’”. Palanka sustatzeko helduok dugun arduraz ohartarazi gaitu Lerak: “Ikasle bat Lehen Hezkuntzako matematikan trabatuta zebilen eta etxera joanda amak esan zion: ‘zu ni bezalakoa zara, niri beti gaizki eman zaizkit matematikak’. Hara zer espektatiba garatu zituen. Saia-tzeari utzi zion, juxtu-juxtuan gaintzen zituen eta kito. DBHko 3. mailan zegoenean irakasle batek hartu zuen bere azterketa eta esan zion ‘konturatu zara matematiketarako neurrizgorako gaitasunak dituzula?’. Eta matematiketako adarra hartu zuen! Bi esaldi izan ziren”.

✓ **Emozioak:** “Edozein ekin-tzaren oinarria direnez, goazen klima emozionala lantzea gelan. Garatu dezagun emozio positiboak erakarriko dituen testuingurua. Erabili dezagun giroa, umore asko, musika zergatik ez?”.

nek ongi jarraituko dute eta “grisa” dena oso denbora gutxian nabarmentzen hasiko da. Grisak deituak dira klasera joan, etxeko lanak egin eta azterketak gaintu arren nabarmentzen ez direnak. “Batek begiratzen dituenak, esaten dienean ‘zu oso ona zara honetan’ jada beste era batera ikusten dira eta aldatzen hasten dira”. Akademikoki gaizki zihoazanak asko hobetzen dira, baina hauei Golden igurtzi gehiago eman behar zaizela azaldu du Lerak: “Hauengan aldatetako ikusten hasten dira bi hilabetera, kasuaren arabera”.

Aldaketa txikiak eta errazak dira, eta lorpenak handiak. Txikiak izateak ez duela azal-koa esan nahi adierazi digu Ana Azkona Lasarteko Berritzeguneko Golden arduradunak: “Estrategiak oso zentzuzkoak dira, esaterako begirada eusteak ematen dizu pertso-na horren arreta. Hori gauza sinplea da baina batzuek ezin dute. Gelan pertsona bat ukitzea oso sinplea da baina ekartzen duena aldaketa handia da, eta norberaren aldaketa eskatzen du, beste pertsona ikustea, ahal duela ikustea, beragan sinestea... Oso sakona



Ana Azkona Lasarteko Berritzeguneko Golden 5 koordinatzailea.

da. Beste begirada bat lantzen du irakasle horrek ikasleenganako, Golden irakaslea bihurtzen zara. Gauza negatiboetan bakarrik fokatzeak nora garamatza? Zer eginik ez dagoela justifikatzera. Kasu etsigarrietan ere hori da bidea, alde positiboa bilatu behar dugu eta hortik palanka eginaz bere ahalmen eta dohain guztiak atera”.

Gurasoak ere Golden

Etxea oinarrizkoa da. Familia eta eskola elkarrekin doazenean orduan ikusten dira emaitzak argiago: “Familiak ikuspegi honen partaide egin behar dira. Deitu diezagutela gure umeak ongi daudenean ere, partekatu dezagun ona. Familiari mezu positiboak helarazi behar zaizkio. Denei, hauek ere bosnaka hartu behar ditugu, ez gaitzen ino-

Hego Euskal Herrian

Duela bi urte hasi ziren Golden 5 programa lantzen Ordizia, Lasarte eta Durangoko Berritzeguneetan. Batez beste bakoitzean 15 ikastetxe ari dira (argazkian, maiatzeko jardunaldietan euren esperientzia kontatu zuten Gipuzkoako irakasleak). Datorren ikasturtean Irun, Donostia eta Eibarko Berritzeguneak eta Iruñeko Irakasleen Laguntzarako Zentroa hasiko dira lantzen. Proiektua abiatzen ari da, beraz. Hurrengo ikasturterako sakontze maila prestatu dute eta bertan parte hartuko duten irakasleek konpromisoa hartu dute euren ikastetxean lanketa sistematizatzeko eta zabaltzeko.

ren gurasoek ahaztu. Akademikoki umea gaizki badoa, mezu positiboak emango dizkiogu maila sozialean. Gurasoak negarrez etorri izan zaizkigu ‘niri inoiz ez dit inork ezer positiborik esan nire semeaz, 15 urte ditu eta porrot hutsa da’ esanaz. Arazo bat denean bakarrik deitzen badidate, defentsa jarreran joango naiz, eta irakasleak deitzen badit izango da berak ez dakielako zer egin egoerarekin, baina nik ere ez dakit zer egin. Ez gaitzen elkartu ez dakigun horretan, goazen onean elkartzera. Deitzen badidate ‘zatoz, zure umeak portaera itzela dauka eta matematiketan sekulako arreta jartzen du, harrituta nauka’, hazi-hazi eginda joango naiz. Goazen une horiek gozatzera. Goazen elkarrekin bide egitera batzen gaituen begiradarekin. Arazoek hor jarraitzen dute, baina arazoak txikitxo jarriko ditugu eta gainera saiatuko gara konpontzen plan batekin, eskaileratxo batekin. Pixkanaka-pixkanaka eskailera mailak igotzen joango gara eta baten bat oso handia bada eta ezin badugu igo, maila txikiagoak jarriko ditugu tartean. Baina izan dezagun begirada hori: jakina posible dela, jakina ahal dugula! Gure esku dago”. ■

